



Leioan, 2023ko azaroaren 28an

Matematikako mintegiburuari

Adiskide hori:

Honekin batera doakizu LX OLIMPIADA MATEMÁTICA ESPAÑOLA delakoari buruzko informazioa, RSMEk bidali digun moduan, zure ikastegiko ikasleek ezagutu dezaten. Lehenengo saioa, bertako lehiakideak biltzen dituen, **2024ko urtarrilaren 19a** ostiralean ospatuko da.

RSMEren oinarriak erdaraz egon arren, jakin ezazu fase honetako ariketak euskaraz zein erdaraz egiteko aukera egongo dela. Mezuarekin batera, izena emateko orria doakizu eta bertan ikusiko duzu zein helbidera bidali behar den.

Bigarren fasea edo Estatu mailako fasea 2024ko martxoaren 14a eta 17a bitartean ospatuko da Calatayuden. Orduko probak erdaraz egin beharko dira. Hortaz gain, bertako fasetan sailkapen hoberenak lortuko dituzten 15 nesken artean 2024ko apirilean Georgian ospatuko den Europako Nesken Olinpiada Matematikoa (EGMO) lehiaketan parte hartzeko talde nazionala aukeratuko da.

Ondoko webgunearen bitartez

<http://www.olimpiadamatematica.es>

Olinpiada Matematikoei buruzko informazio ugari aurki dezakezue (besteak beste, aurreko urteetako azterketak eta hauek prestatzeko ariketak).

Gogorarazten dizuegu UPV/EHUko irakasle talde batek Olinpiada prestatzeko tailerra antolatu duela. Ekimen horri buruzko informazio guztia eta landutako gaiak eta materialak

<http://www.ehu.eus/olimpiadamat>

webgunean aurkituko dituzue.

Zure ohiko laguntza eskertuz, agur bero bat,

Josu Sangroniz (josu.sangroniz@ehu.eus)